

## **SOS BASERRIAK mugimenduak eskualdean hiltegi berri bat eraikitzeke proposamen eta memoria baloratua aurkeztu du Aiarako Koadrilako Osoko Bilkuran**

Atzoko egunean, SOS BASERRIAK mugimenduak Aiaraldean hiltegi berri bat eraikitzeke proposamen eta memoria baloratua aurkeztu zuen Aiarako Koadrilako Osoko Bilkuran.

Laster aurkeztuko dute jendaurrean proiektua.

Proposamenak itxitako Laudioko Udal Hiltegiaren bolumena hartu du oinarri.

Horretarako egokitu daiteken Laudioko partzela batean kokatzea proposatu da, baina iradokizuna besterik ez da. SOS BASERRIAKeko ordezkariak argi utzi dute gutxieneko baldintza onargarria Aiaraldeko ingurune naturalean kokatzea dela, hau da, eskualdea osatzen duten 9 udalerrietako batean kokatzea.

Proiektu horren helburu nagusia eskualdeko abeltzaintzako ustiategi txikiak gogobetetzea da, zatikatze-zerbitzua erraztuz elikagaien zuzeneko salmenta arintzeko, baina ez du baztertzen bigarren mailako helburu gisa balio-katean zuzenean esku hartzea, eta eskualde horretan ekoiztutako haragia jasangarritasun-irizpideen arabera balorizatuko duen marka bat sortzea baita.

Aurkeztutako baloraturako memoriatik ondorioztatzen denez, ekonomikoki bideragarria da, aurreko Laudioko Udal Hiltegia bezala, baina zimendu are sendoagoekin, honek baino zerbitzu gehiago eskainiko baititu.

Eskualdearen etorkizuneko erresilientzia ekonomikoa, besteak beste, eraldaketarako egiturak sortzean datza; horrek lehen sektorean pertsona berriak instalatzea erraztuko du; eta kontsumitzaileei produktu osasungarri, elikagarri, eskuragarri eta lokalekin elikatzen jarraitzeko aukera emango die. Ez dezagun ahaztu aurreko Udal Hiltegia Laudio bezalako herri bateko haragi-kontsumoaren % 40 ekoizteko gai zela.

SOS BASERRIAK en iritziz, gure gaurko ekintzek eskualde honen etorkizuna baldintzatuko dute, gure erabakiekiko burujabe egingo gaituzten tresnak behar ditugu, eta aukerari ihes egiten uzten badiogu, apustu zuzena egin zutenek uzten dizkiguten esparruetan bakarrik erabaki ahal izango dugu.

